

KOMETA



Soinean marra zuri eta urdineko alkandora zerman mutiko ilehoriak parkean kartoi zati bat aurkitu eta etxera eraman zuen. Joxe Felipe zuen izena mutikoak, bainaaa denek Peli esaten zioten.

Etxera iritsi bezain laister, Peli logelan sartu zen. Guraizeak eta koloreetako paper pila hartu eta arratsalde osoa lan eta lan eman zuen. Papera moztu eta itsatsi; itsatsi eta berriro moztu. Pelik ia amaituta zuen kometa, eta amak afaltzera dei egin zion.

Peli jangelan sartu zenean, zera galdetu zion aitak:

- Zertan aritu zara arratsaldean?
 - Kometa bat egiten ari naiz- erantzun zion Pelik.
 - Kometa bat! Erakutsiko al didazu gero, afaldu ondoren?
- Neuk ere atsegin ditut kometak-esan zion aitak.

Peli zain-zain egon zen, urduri, afaria noiz amaituko.

Gero, korrika gelara joan eta kometa eraman zion aitari.

Peli harro zegoen; zera esan zion aitak:

-Lan bikaina,Peli. Polita da oso kometa. Bukatutakoan, parkera joango gara, hegan nola egiten duen ikustera.

IA ULERTU DUZUN:

- Ipuineko mutikoak..... du izena, baina denek..... esaten diote.
- **Zer aurkitu zuen mutikoak parkean?**
- **Osatu:**
Peli bere..... zegoen egiten, eta amak.....dei egin zion.
- Idatzi **P** Pelik esan bazuen eta **A** aitak esan bazuen:

Zertan aritu zara arratsaldean?
Kometa bat egiten ari naiz.
Neuk ere atsegin ditut kometak.
Polita da oso kometa.
- Nora esan zuen aitak joango zirela Peli eta biak kometak egiten zuen ikustera? Aukeratu lekuaren izena: